



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka  
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY  
2024/02/05LESAKAKO UDALA  
Plaza Zaharra, 1  
31770 Lesaka (Nafarroa)  
IFZ P3115200B  
Telf. 948637005  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)  
[udala@lesaka.eus](mailto:udala@lesaka.eus)  
NIF: P3115200B

IDAZKARITZA / SECRETARIA

## ALKATEAREN EBAZPENA, ZERBITZU ANITZETAKO OFIZIALA/BASOZAINA LANPOSTUA OPOSIZIO LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO EPAIMAHAIA IZENDATZEN DUENA.

Alkatearen 216/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 26koa; urriaren 31ko 509/2022 Ebazpenak aldatua –2022ko 228. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 17koa–) onetsi da 2022rako lan publikoaren eskaintza, ezartzen dituen enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeari jarraikiz.

Osoko Bilkuran 2022ko azaroaren 16an hartutako erabaki baten bidez, toki erakunde hau partez atxikitzen zaio uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze-prozesuak gauzatzeko, Nafarroako Administrazio Publikoetan, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

Lesakako Udaleko alkatearen abenduaren 14ko 578/2022 Ebazpenaren bidez onetsi zen zerbitzu anitzetako ofiziala/basozaina lanpostu hutsa oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen xedatutakoaren arabera. Ebazpen hori 2022ko abenduaren 30eko 263. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ale berezian eta zuzenketa 2023ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Deialdiaren 5 oinarrien arabera, Kalifikazio epaimahaia deialdi hau onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko da.

Ikusirik deialdiaren 5.7. oinarria, non, epaimahaiak aholkulari espezialistei deitzen ahalko die, bere eskumeneko jarduketetatik edozeinetan laguntzeko. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

Ondorioz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

### EBATZI DUT:

1.) Lesakako Udaleko zerbitzu anitzetako ofiziala/basozaina lanpostua (C maila) egonkortzeko eta finkatzeko epaimahaiko kide honako hauek izendatzea:

**-Lehendakaria:** Ladis Satrustegui Alzugaray, Lesakako Udaleko alkatea.  
Ordezkoa: Argiñe Ordoki Urkixo, Lesakako Udaleko alkateordea.

**-Bokala:** Iñigo Urdangain Zurutuza, Lesakako Udaleko kontuhartzailea.  
Ordezkoa: M.Dolores Oyarzabal Zubieta, Berako Udaleko kontuhartzailea.

**-Bokala:** Jon Ander Altxu Elizagarai, Centro para la formación para el empleo Landabenengo langilea (prestatzaile-orientatzailea).  
Ordezkoa: Xavier Moreno Macuso, Centro para la formación para el empleo Landabenengo langilea (prestatzaile-orientatzailea).



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka  
MARIA JOSE LARRYOZ ARIZTEGUI  
2024/02/05

LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA AADN AHLR MTJ4 DU97

**Resolución Nº 70 de 05/02/2024 "Enplegu anitzetako/basozain lanpostua deialdiaren epamahaia izendatzea." - SEGRA 18629**Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/> 2tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka  
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY  
2024/02/05



LESAKAKO UDALA  
Plaza Zaharra, 1  
31770 Lesaka (Nafarroa)  
IFZ P3115200B  
Telf. 948637005  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)  
[udala@lesaka.eus](mailto:udala@lesaka.eus)

NIF: P3115200B

## IDAZKARITZA / SECRETARIA

**-Bokala:** Asier Perez Areta, Centro para la formación para el empleo Landabenengo langilea (prestatzaile-orientatzailea).

Ordezkoa: Mikel Guruciaga Reparaz, Centro para la formación para el empleo Landabenengo langilea (prestatzaile-orientatzailea).

**-Bokala:** Estibaliz Iparraguirre Madariaga, Lesakako Udaleko langileen ordezkaria.

Ordezkoa: Mikel Gotzon Ortiz de Urbina Olaetxea, Lesakako Udaleko langileen ordezkaria.

**-Bokala:** Enrique Montero Santa Eugenia, basogintzako ingeniaria.

Ordezkoa: Gregori Miaillier, basogintzako ingeniaria.

**-Idazkaria:** M. Jose Larrayoz Ariztegui, Lesakako Udaleko idazkaria.

Ordezkoa: Miguel Jose Belarra Tellechea, Berako Udaleko Idazkaria.

2.) Epamahiak aholkulari espezialistei izendatzeko aukera ematea.

3.) Ebazpen hau epamahaikideei jakinaraztea eta Udaleko web orrian argitaratzea.



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka  
MARIA JOSE LARRAYOZ ARIZTEGUI  
2024/02/05



LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA AADN AHLR MTJ4 DU97

Resolución Nº 70 de 05/02/2024 "Enplegu anitzetako/bazozain lanpostua deialdiaren epamahaia izendatzea." - SEGRA 18629

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/>

2tik 2 orrialdea